

THINK TANK

Etorkizuneko lanari buruzko eztabaida prozesua: 7. lan dokumentua

Proiektu esperimental baten oinarrien proposamena

(2021eko otsailaren 4a)

Lan dokumentu honek jarraipena ematen die aurreko seiei, eta Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak eztabaida taldeari hausnarketarako eta eztabaidarako proposatzen dion etorkizuneko proiektu esperimentalaren oinarriak jasotzen ditu. Proposamena aurreko sei dokumentuetan oinarrituta dago, eta kontuan hartzen dira ere proiektu esperimentalak definitzeko Etorkizuna Eraikizen ezartzen diren irizpideak.

Proposamena egiteko prozesuak urrats hauek jarraitu ditu:

- (1) Eztabaida prozesuaren emaitza nagusiak laburtzea
- (2) Proiektu esperimentalaren fokua lehenestea
- (3) Proiektu esperimentala garatzeko esparrua proposatzea

Hurrengo paragrafoetan prozesuaren hiru fase horiek partekatzen dira, 2021eko otsailaren 18ko tailerra prestatzeko material gisa, eta eztabaida taldearekin kontrastatuko dira.

Eztabaida prozesuaren emaitza nagusien laburpena

1. eranskineko taulan laburbildu dira eztabaida prozesuaren emaitzak. Taula horretan, alde batetik, eztabaida prozesuan gehien nabarmendu diren joerak jasotzen dira, baita joera horiek ustez sortuko dituzten arazoak eta irtenbide posibleak ere (proiektu esperimentalaren helburu potentzialak eta lurraldeko eragileek konponbide horiek bilatzeko eta eraikitzeko izan ditzaketan rola adierazita).

Joerei buruzko eztabaida hiru gogoeta handitan laburbildu da:

- a) Digitalizazioak eta trantsizio ekologikoak eragina izango dute etorkizuneko lanean; beraz, lan egin behar da pertsonen gaitasun egokiak izan ditzaten eszenatoki berri horietan.
- b) Balio kateen eraldaketak, hainbat faktoreren ondoriozkoak (digitalizazioa aztertu da besteak beste), pertsonen eta enpresaren arteko harreman desberdina planteatuko du etorkizunean. Aldaketa laburbiltzeko, esan daiteke aurreko belaunaldiak bizitza osoko lana zutela, gaur egungoek zazpi dituztela beren ibilbide profesionalean, eta etorkizunekoek zazpi izango dituztela aldi berean. Hori aurreko joerarekin eta gaitasunen garrantziarekin uztartzen bada, bi langile-talde eratzen hasiko dira. Enpresek bilatzen dituzten eskumenak dituztenak eta ez dituztenak.
- c) Belaunaldi aldaketak, gainera, bizitzaren zentzuaz bestelako bizipen bat dakar eta, esparru horren barruan, lanaren zentzua dago. Garrantzitsua izango da logika berri horiek ulertzea, baldin eta belaunaldi berriek Gipuzkoako enpresen alde egiten jarraitu nahi badute, lantokitza hartuta, eta, beraz, zentzua bilatzearen alde. Gure ustez, joera horrek aurreko bi hausnarketak biltzen ditu, eskatutako gaitasun berriei eta enpresen eta langileen arteko harreman modu berriei buruzkoak. Gainera, aurrekoak baino

gutxiago landu den eta «ulertzea gehiago kostatzen zaigun» ikuspegitik abiatuta egiten du.

Joera horien esparruan, sortzen diren arazoak pertsona-enpresa-lurraldea ardatzean planteatu dira:

- a) Enpresek eskatzen dituzten gaitasunak ez dituzten langileek arazoak izango dituzte enpresekin harreman egonkorak ezartzeko; izan ere, enpresek profil horiek maiztasun txikiagoarekin eta aldi laburretarako beharko dituzte. Horrek eragin negatiboa izango du pertsona horiek bizi baldintza duinak izateko gaitasunean, eta desberdintasunak sortuko ditu lurraldean.
- b) Enpresek zailtasunak izango dituzte epe luzeko harremanak izateko gehien eskatzen diren gaitasunak dituzten pertsonekin. Horrek eragin negatiboa izan dezake enpresen eta, ondorioz, lurraldearen lehiakortasunean.
- c) Aurreko bi arazo horiek zailtasunak sortzen dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldearentzat ezarritako helburuak betetzeko, pertsonen ongizatean eta desberdintasunen murrizketan eragingo duen lehiakortasunari dagokionez.

Honako hauek dira eztabaida prozesuak, aurreko arazoei konponbideak bilatzeko, mahai gainean jarri dituen elementuak:

- a) Ikaskuntza prozesuen zeregina nabarmendu da, eta adierazi da «ikastaro tradizionaletatik» haratago doazen eta pertsona bakoitzari eta gizarte osoari trantsizioak egiten laguntzen dieten ikaskuntza formulak aztertu behar direla.
- b) Ikaskuntza ez da pertsona bakoitzaren banakako prozesu bat soilik; ikasten duen enpresaren eta ikasten duen lurraldearen kontzeptuak ere aipatu dira.

Hauek dira herritarren, enpresen eta administrazio publikoaren rolak:

- a) Herritar bakoitzak duen zereginari dagokionez, azpimarratu da garrantzia handia duela bakoitzaren gaitasunen eta egungo lanpostuaren kalteberatasunari buruzko hausnarketa egitea, enpresen eta administrazio publikoen aldetik egon daitekeen babesaz gain, egungo joerek dakarten erronkari buruzko kontzientziario pertsonala ere egon dadin.
- b) Enpresek pertsonen garapenaren aldeko apustu sakonagoa egin dezakete, egungo prestakuntza planetatik eta baliabidetatik haratago doana. Horretarako, garapen hori beste modu batean ulertu, kalkulatu eta lagundu behar da, zentzuaren bilaketa prozesuaren zati gisa integratuz.
- c) Administrazio publikoaren eta, zehatzago, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zereginaren helburua da laguntza ematea eta, aldi berean, lidergoa, lurralde ikuspegia, misio partekatua, elkarlaneko gobernantza eta baliabideak ematea.

Proiektu esperimentalaren fokua lehenestea

Hiru joeren artean, proiektu esperimentalaren fokua hirugarrenean jartzea proposatzen da, hau da, lanean zentzua bilatzea. Ikuspegi horrek aurreko biak integratuko ditu ezinbestean, baina

orain arte gutxiago landu den eta, beraz, proiektu esperimental baterako egokiagoa den oinarri batetik abiatuko da.

Eztabaida prozesuan zehar, sarritan hitz egin da pertsona-enpresa-lurraldea ardatzaren inguruan. Kasu honetan, fokua enpresan jartzea proposatzen da, kontuan hartuta enpresa pertsonengana iristeko espazio bat izango dela eta lurraldearen helburuetan eragin zuzena izango duela.

Horrenbestez, proiektu esperimental bat abian jartzea proposatzen da, enpresek erabiltzeko moduko prozesuak/tresnak garatu ahal izateko, zehazki, langileek lanean zentzua bilatzeak enpresekiko harremanean nola eragiten duen hobeto ulertzeko, eta ulermen horretatik abiatuta, pertsonak erakartzeko eta garatzeko prozesuak hobetzeko.

Proiektua definitzeko hurrengo urratsak

Eztabaida taldeak ezarritako lehentasunei egindako ekarpenak gehitu ondoren, proiektuaren zirriborro bat prestatuko da, Etorbizuna Eraikiz proiektu esperimentaletarako ezartzen dituen ezaugarri hauek kontuan hartuta:

- a) Konektatzea Etorbizuna Eraikiz ekimenaren helburu estrategikoren batekin.
- b) Helburutzat hartzea eremu honetako erronka bati edo batzuei erantzutea.
- c) Lurraldeko diziplina anitzeko taldeak erantsi behar dira proiektua garatzeko, nazioarteko kontrastea errazten duten nazioarteko eragileez gain
- d) Esperimentazio praktikora bideratuta egotea, eraldatzeko helburuarekin.
- e) Unibertsitatea txertatzea, garapenari begira.
- f) Modu koordinatuan landu behar dira ikerketa, internalizazioa eta hedapena

Proiektu esperimentalek, sarritan, zailtasunak izaten dituzte proiektu pilotuetatik hedapen eta eragin orokorragoetara igarotzeko. Arazo horiek saihesteko, esperimentazioarekin batera, etorkizunean emaitzak enpresetara eramateko aukera emango duen elkarlaneko gobernantza eraikiko da. Horregatik, datozen hilabeteetan, gobernantza honetan zeregin garrantzitsua izan dezaketen lurraldeko eragileak eztabaida prozesura gehitzeko aukera aztertuko da.

1. ERANSKINA. EZTABAIDA PROZESUAREN LABURPENA

